

2018ko azaroaren 14a.

BATELEREN KOMUNIKATUA

Komunikatu honen helburua da 2017-2018ko denboraldian San Juango arraunlari izan diren Batelera gehieneko egoera zein den jakinaraztea, aurreko azaroaren 12an argitaratu zen elkarrizketaren harira.

Gure hasierako helburua talde bezala gure ibilbidearen amaieraren berri ematea zen eta belaunaldi honen bukaera triste eta mingarria azaltzea, erabakiaren atzean zein arrazoi dauden azalduz. Talde bezala, argitu nahiko genuke erreportaje horretan agertutako ideia batzuk modu desegokian azaldu genituela nahasmena sorraziz: dimisioa eskatzea, 13 gizonetako arraunlarien alde egitearen zergatia eta Nerearen kasua, besteak beste.

Hasieratik garbi utzi nahi dugu Zuzendaritzak egiten duen lana aintzat hartzen dugula, borondatezko lana delako, etenik gabekoa eta elkartearantz guztiz beharrezkoa. Baina beste hau ere egia da, alegia, bizikidetzaz arazo larriak izan direla arraunlarien eta Zuzendaritzaren artean. Aurten bizi izan ditugun egoera ugari komunikazio arazoz, gaizkiulertuz eta errespetu faltaz beterik egon dira. Ondorioak agerikoak izan dira: talde bezala inoiz baino gehiago elkartu gara, baina indibidualki ahuldu egin gaitu eta kasu batzuetan, osasuna kaltetua aterada: antsietatea, beldurra...

Gertaera hauek ezin zaizkie Zuzendaritzako partaide guztiei egotzi, baina egoera hauen aurrean Zuzendaritzako pertsona horiek ez dute momentuan erreakzionatu eta kasu gehienetan, ez dute esku hartu.

Zuzendaritza taldeko batzuek barkamena eskatu dute. Hala ere, berandu iritsi da, ez du eragindakoa kaltea erreparatzen eta ez du elkarbizitza osasuntsua bermatzen etorkizunean.

Gatazkaren parte bezala ez dugu jakin arazoa konpontzen. Arraunlarien eta Zuzendaritza taldearen arteko sinbiosia gehiegi okertu da eta askotan, mugak gainditu dira. Hortaz, San Juanen goi mailan arraun egiteari uko egiten diogu, eta erabakia finkoa eta itzulezina da. Honek frustrazioa, tristura eta etsipena sortzen dizkigu, bai guregatik eta bereziki, gure ondoan beti egon den herriarengatik.